**HASTA AHORA,** las personas inscritas en las listas de contratación recibían una llamada de teléfono y tenían que decidirse en muy poco tiempo.
Claro que, para recibir la llamada, el teléfono tenía que estar disponible… y a veces ocurría que se perdía la plaza.



**CON EL NUEVO SISTEMA,** el contacto contigo es seguro y desaparece el estrés asociado a la toma de decisión ya que vas a disponer de **24 horas para responder.**
Y además, el nuevo sistema es más transparente: todo sucede a la vista de los interesado/as, que pueden acceder a una información completa de todo el proceso de selección.

## ¿CÓMO FUNCIONA EL NUEVO SISTEMA?

Mediante una aplicación que te adjudica automáticamente, en su caso, la mejor de las ofertas a la que puedes optar.

## ¿DESDE CUÁNDO VA A FUNCIONAR?

Desde el mes de mayo de 2017. Habrá tres convocatorias semanales: lunes, miércoles y viernes.




## ¿EN QUÉ MOMENTO PUEDO PARTICIPAR?

Desde las 13 horas del lunes y miércoles hasta las 10 horas del día siguiente; y desde las 13 horas del viernes hasta las 10 horas del lunes.




## ¿QUÉ NECESITO?

» Estar disponible en alguna de las listas de las ofertas de la convocatoria. Puedes consultar las listas en todo momento.
» Disponer del DNI y del PIN de la Hacienda Navarra; o bien del Certificado digital o DNI electrónico.

## ¿CÓMO COMPRUEBO SI ESTOY CONVOCADO/A?

Una vez publicada la convocatoria, puedes consultar la lista de las personas aspirantes en la pestaña «Aspirantes».

## ¿ESTOY OBLIGADO/A A PARTICIPAR EN CADA CONVOCATORIA?

» Solo **están obligadas** a participar las personas **disponibles** en las listas de las ofertas de la convocatoria con «participación obligatoria».
» **No están obligadas** las que están **disponibles** y hayan sido convocadas con «participación voluntaria».

## ¿QUÉ OCURRE SI ESTOY DISPONIBLE CON PARTICIPACIÓN OBLIGATORIA EN UNA LISTA Y NO PARTICIPO?

Presta atención, porque pasarías a situación de **no disponible** en todas las listas.

**RECOMENDACIÓN: SI APARECES COMO DISPONIBLE Y ESTÁS CONVOCADO O CONVOCADA CON «PARTICIPACIÓN OBLIGATORIA» EN UNA LISTA, TE RECOMENDAMOS QUE ELIJAS TODAS LAS PLAZAS OBLIGATORIAS DE ESA LISTA, ORDENÁNDOLAS SEGÚN TU PREFERENCIA. ASÍ EVITARÁS PERDER TU CONDICIÓN DE DISPONIBLE.**

## ¿CÓMO PUEDO SOLICITAR VOLVER A ESTAR DISPONIBLE EN LAS LISTAS?

» Telematicamente a traves del Registro General del Gobierno de Navarra
» o bien presentando una instancia general en cualquier oficina de Registro del Gobierno de Navarra.

## ¿CUÁNTAS VECES DEBO HACER ESTE TRÁMITE?

Solo una vez por cada curso escolar. Ten en cuenta que podrás solicitar que te den de alta en situación de DISPONIBLE en todas listas.

## ¿CÓMO SABRÉ SI ME HAN ADJUDICADO UNA PLAZA?

Consultando la pestaña de ADJUDICACIONES.
Además, el Departamento de Educación te enviará un sms y un correo electrónico a la dirección de correo y al teléfono móvil que hayas facilitado.
Pero no te confíes: si por cualquier causa no recibes el mensaje a tu correo o a tu teléfono, no podrás reclamar si se te pasa el plazo.

## ¿QUÉ TENGO QUE HACER CUANDO RESULTE ADJUDICATARIO/A DE UNA PLAZA?

Ponerte en contacto con el Servicio de Recursos Humanos cuanto antes. Y acudir solo cuando te lo indiquen.

## ¿CUÁNDO Y DÓNDE FIRMARÉ EL CONTRATO?

Recibirás un aviso vía sms y correo electrónico en el que te indicarán el lugar de referencia de tu centro donde deberás firmarlo. Acude cuanto antes.

## ¿QUÉ TENDRÉ QUE LLEVAR PARA FIRMAR EL CONTRATO?

Si ya has trabajado para el Departamento de Educación, no tienes que aportar ningún documento.
Pero si es la primera vez que lo haces, deberás enviar a la dirección «contratoseducacion@navarra.es» los siguientes documentos:
» el impreso cumplimentado de datos personales
» un certificado negativo del registro central de delincuentes sexuales o impreso de autorización para la obtención del mismo
» una copia del DNI
» y el impreso cumplimentado para la póliza de los seguros de vida y accidentes.
Además, los aspirantes contratados a través de las listas del Servicio Navarro de Empleo deberán enviar una copia del título.

## ¿PODRÉ RECHAZAR UNA OFERTA UNA VEZ ADJUDICADA?

Si rechazas una oferta que ya te ha sido adjudicada serás excluido o excluida de las listas.

## ¿DÓNDE PUEDO VER MIS SOLICITUDES?

Mientras está abierta la convocatoria, podrás consultar todas las solicitudes realizadas en esa convocatoria.
Y una vez cerrada, podrás consultar el histórico de todas las solicitudes en la Carpeta ciudadana y en el Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra.

**Si tienes cualquier duda** o te surge un problema puedes escribir al Departamento de Educación en la dirección **contratoseducacion@navarra.es** o llamar al **848 426 520**

Suplementariamente, para las contrataciones temporales que no puedan ser cubiertas mediante el procedimiento descrito, el Departamento de Educación publicará, también a través de **www.navarra.es,** un llamamiento extraordinario al que podrán presentarse también aspirantes que, aunque no estén en las listas de contratación temporal de docentes, sí cumplan los requisitos de esas vacantes.

# ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK IKASTURTEAN ZEHAR

## Aplikazio telematiko berria, irakaskuntzako ordezkapen lanpostuak esleitzeko



Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua

**ORAIN ARTE,** zerrendetan izena emanda zeuden pertsonek telefono dei bat jasotzen zuten eta oso denbora gutxi izaten zuten erabakia hartzeko.
Jakina, deia jasotzeko, telefonoak piztuta, libre, erabiltzeko moduan… egon behar izaten zuen eta batzuetan lanposturako aukera galtzen zen.



**SISTEMA BERRI HONETAN,** ordea, harremanetan jartzea segurua izango da. Eta erabakia hartzeari lotutako estresa desagertuko da, **24 ordu egongo baitira erantzuteko.**
Eta, gainera, gardenagoa izango da: dena interesdunek ikusteko moduan gertatuko da, hautaketa prozesu osoaren informazio guztia eskuratzeko aukera izango baitute.

**NOLA FUNTZIONATUKO DU SISTEMA BERRIAK?**
Aplikazio telematiko baten bidez: bere kasuan, aukeran dituzun eskaintzetan onena esleituko dizu automatikoki.

**NOIZ JARRIKO DA ABIAN?**
Hurrengo maiatzean.
Astean hiru deialdi egongo dira: astelehen, asteazken eta ostiraletan.




**ZEIN UNETAN PARTE HARTU AHAL IZANGO DUZU?**
» asteleheneko 13:00etatik astearteko 10:00ak arte;
» asteazkeneko 13:00etatik osteguneko 10:00ak arte;
» ostiraleko 13:00etatik asteleheneko 10:00ak arte.




**ZER BEHAR DUZU?**
» Deialdiko eskaintzetako zerrendetakoren batean libre egotea. Zerrendak une oro kontsultatu ditzakezu.
» NANa eta Nafarroako Ogasuneko PIN pasahitza edukitzea; edo Ziurtagiri edo NAN elektronikoa.

**NOLA IKUS DEZAKEZU DEITUTA ZAUDEN, DEIALDIAN ZAUDEN?**
Behin deialdia kaleratu denean, izangaien zerrenda «Izangaiak» erlaitzean kontsultatu dezakezu.

**BEHARTUTA ZAUDE DEIALDI BAKOITZEAN PARTE HARTZERA?**
» **Behartuta daude** parte hartzera deialdiko eskaintzetako zerrendetan **libre** dauden pertsonak «nahitaezko parte-hartzearekin».
» Beraz, **ez daude behartuta libre** dauden eta «borondatezko parte-hartzearekin» deia egin zaien pertsonak.

**ZER GERTATUKO DA LIBRE BAZAUDE NAHITAEZKO PARTE-HARTZEAREKIN ZERRENDA BATEAN ETA EZ BADUZU PARTE HARTZEN?**
Jarri arreta, zerrenda guztietan **libre ez** egoerara igaroko baitzara.

**GOMENDIO BAT... LIBRE MODUAN AGERI BAZARA ETA «NAHITAEZKO PARTE-HARTZEAREKIN» DEIALDIA EGIN BAZAIZU ZERRENDA BATEAN, ZERRENDA HORRETAKO NAHITAEZKO LANPOSTU GUZTIAK AUKERATZEA KOMENI ZAIZU, ZURE LEHENTASUNEN ARABERA ORDENATUTA. HARTARA, LIBRE EGOERA GALTZEA SAIHESTUKO DUZU.**

**NOLA ESKA DEZAKEZU ZERRENDETAN BERRIRO LIBRE EGOTEA?**
» Telematikoki, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez;
» edo eskari orri orokor bat aurkeztuta, Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro-bulegotan.

**ZENBATETAN BIDERATU BEHAR DUZU IZAPIDE HORI?**
Ikasturte bakoitzean behin baino ez.
Kontuan izan ezazu eskatu ahal izango duzula zerrenda guztietan LIBRE egoeran alta ematea.

**NOLA JAKINGO DUZU LANPOSTU BAT ESLEITU DIZUTEN EDO EZ?**
ESLEIPENAK erlaitza kontsultatuta. Horrez gain, Hezkuntza Departamentuak SMS bat eta mezu elektroniko bat igorriko dizkizu eman dituzun helbide elektroniko eta telefono zenbakira.
Baina arreta jarri eta ez fidatu: edozein arrazoirengatik ez baduzu mezua jasotzen, ezingo duzu erreklamaziorik aurkeztu epea igarotzen bada.

**ZER EGIN BEHAR DUZU LANPOSTU BAT ESLEITZEN BADIZUTE?**
Giza Baliabideen Zerbitzuarekin harremanetan jarri lehen-bailehen. Haiek esaten dizutenean baino ez duzu joan behar.

**NOIZ ETA NON SINATUKO DUZU KONTRATUA?**
Abisu bat jasoko duzu, SMS eta posta elektronikoaren bidez.
Bertan, zure ikastetxearen erreferentziazko tokia adieraziko dizute eta han sinatu beharko duzu. Joan lehenbailehen.

**ZER ERAMAN BEHAR DUZU KONTRATUA SINATZEKO?**
Lehendik lan egin baduzu Hezkuntza Departamenturako, ez duzu inolako agiririk eraman behar.
Lehen aldia bada, ordea, helbide elektroniko honetara: contratoseducacion@navarra.es dokumentu hauek bidali beharko dituzu:
» datu pertsonalen inprimakia, beteta;
» sexu-gaizkileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat edo hura eskuratzeko baimentze-inprimakia;
» NANaren kopia bat;
» eta bizi eta istripu aseguruetako polizarako inprimakia, beteta.
Horrez gain, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerrenden bidez kontratatutako izangaiek tituluaren kopia bidali beharko dute.

**UKO EGIN DIEZAIOKEZU ESKAINTZA BATI BEHIN ESLEITUTA DAGOENEAN?**
Esleitu zaizun eskaintza bati uko egiten badiozu, zerrendetatik kanpo geldituko zara.

**NON IKUS DITZAKEZU ZURE ESKAERAK?**
Deialdia zabalik dagoen bitartean deialdi horretan egindako eskaera guztiak kontsultatu ahal izango dituzu.
Eta behin itxita dagoenean, eskaera guztien zerrenda historikoa kontsultatu ahal izango duzu Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan eta Herritarren karpetan.

**Eta zalantzarik baduzu** edo arazoren bat sortzen bazaizu…
Gogoan izan ezazu Hezkuntza Departamentura idatz dezakezula, helbide honetara
**contratoseducacion@navarra.es**
edo **848 426 520** telefonora dei dezakezula

Modu osagarrian, deskribatu den prozeduraren bidez bete ezin diren aldi baterako kontratazioetarako, Hezkuntza Departamentuak, **www.navarra.es** webgunearen bidez, ezohiko deialdi bat kaleratuko du. Hartara, nahiz eta irakasleen aldi baterako kontratazio zerrendetan ez egon, betetzeko postu horien baldintzak betetzen dituzten izangaiak aurkeztu ahal izango dira deialdi horretara.

# CONTRATACIONES TEMPORALES DURANTE EL CURSO ESCOLAR

## Nueva aplicación telemática para adjudicar plazas de sustitución docente



Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra
Departamento de Educación del Gobierno de Navarra